Urtarrilla - Enero
4
Egubena - Jueves
Bilbao, 1934

EUSKADI

ARPIDE-SANEURRIJA
Bilbao'kua... ... 6,00 irko. iru ilez
Bilbao'atazkua 7,50 " "
Idazki-Itunmena 62,00 " urtez
Atzarrijetakuak 100,00 " "
Beldayen itunduba

XXII urtia | Idazkolea ta Banakolea: Correo, 17, 1.° | 234 Idazkutxa | 17.810 Urrutizkiña | 6.576 zenbakija

Egunekua

Euzkel-ixenak

Sodupe'ko Lanbari'tar Jon eta G. Arana'tar Ebaiste senar-emaste aberitzale zintzuak, alabatxu eder bat ixan dabe, ta ugutzan, Mire Koldobike euzkel-ixen begikuak ezari dautsez.

Zorijonak, eta aurerantzian be olantxe jarairu zeuben seme-alabatxubei euzkel-ixenak ezarten, eta euzkel-ixendun umiei euzkeraz irakasten be.

Euzkel-ixendun umiak gazteleraz berbetan ikustia ikuskari barragarija ixaten da, ba.

Egutegi Bizkaitarra

Urte bari oneri jaokan Egutegi Bizkaitara, ¿erosi dozu irakurle? Erosi ezpa-dozu, erositorduoa dozu, ba.

¿Ala erosi barik geratuteko asmua dozu? Olakorik egiten ba-dozu, egin, bizitza gustijan egin ixango zendun baño zorakeri aundijagua egingo dozu.

Egutegi Bizkaitara erosi barik aberitzale bat be eztala geratuko uste dogu. ¡Eleuke geratu biar beintzat!

Itzaldi sutsuba

Largo Caballero erkaltsein ixanak aurtemin oguzi eban itzaldijari, itzald isutsuba deituten dautsagu, arek esan ebazan itzak, sutegitik urtetan ziranen antzekuak ixan be ixan ziran-eta.

Eletari sutsu arek oguzi eban itzaldija, oturuntza-ostian oguzija ixan zan; urdala ondo berotuta gero oguzija.

Lerroux'en aurka eguala autortu eban, eta orain aginpidian daguan Jaurkuna (Gobierno) lekutik jaurti egin biar zala.

Langile-Jaurkuna aginpideratuteko, orain aginpidian dagon Jaurkuna aginpide gustijetatik deuseztuta imindia, biar-biarekua zala iñuan.

Matxiñada gura agertuten zan Largo Caballero bere itzaldi sutsuban. Eta bera txiro ez-euki bat bai-litzan, tirudunen aurka jagi zan.

Txindiduna aldeztuten daben izkilubak, gudaroztiak zirala autortu eban; Txapel-okerak, Asalto'ko ertzañak eta Zuzentza-Epaitegijak edo Tribunales de Justicia be bai.

Oneik gustijok izkilubak kenduta imiñi biar zirala didar egiten eban eletari sutsubak. Ordez, ostera, erija, eri langilia (¡socialistak, irakurle!), izkiluztu, armau-egin biar zala.

Altsein ixan zanian, zozolistuak eta erkaldarak izkiluztuteko asmo au, bere enparauko altsein-lagunei bein baño sarijago agertu ixan eutsela iñuan, Largo Caballero'k, baña euren zoritxarerako, areik lagun ixan ebazan altseñak, (ministruak) ezeutsela jaramonik egin.

"Langilien eskubetaratuten dan Jaurkuna'k, baña, lenengo-lenengo erija izkiluztu biarko dau"—epatu eban zozolistuen eletarijak.

Eta an entzuten eukozanak, txaluak-txalo jo eutsoezan.

卐 卐 卐

Guk, olako zentzun bako itzaldijak egiten dauzan eletarijari, txalorik ezin jo ixango dautsagu, buruba galduta dabilan zentzun bako eletari bat dala esan baño.

Eurak barriro aginpideratuten ba-dira, erija, edo argijago esanda, zozolistuak izkiluztu egingo dabezala esaten daun agindari-geyak, buruban argi askorik eztau, zentzunen apurik be bako txakur-amesak egitia baño ezta ori-ta.

¡Eri - langilia zozolistuak izkiluztu...! ¿Zetarako? ¿Euren lagunak eztiran gustijak zijorpian imiñita, eri basatijaren jopu oigurtuta zigorpian beti eukiteko?

¿Ori ete-da zozolistuen aldedijak dirarka eskatuten daben askaltzaletasuna edo demokrazija?

¿Lerroux'ek, orain esaterako, aginpidian aurkitzen danezkero, bere eriketa-lagun gustijak izkiluztuta, zozolisto gustijak zigorpian imiñiko ba'leukez, Largo Caballero orek, ¿zer esango ete-leuke? Eradikalen egijun barragari oeri, ¿ondo eretxiko ete-leuskijo?

Eztogu uste, ondo erizteko lako gauzea ezta ixan be-ta.

Orduban, kistar-ikasbideko egijei jarraitubaz esan dagigun: geuretzako gura eztogunik, iñorentzat be eztaigun gura ixan.

卐 卐 卐

Aurtengo urterako Egutegi Bizkaitara, irakurle, sei txakur aundian saltzen da.

Euzko-aberitzale gustijak artu biar leuken egutegija, Egutegi Bizkaitara da.

URIBITARTE'TAR IBON.

MUNGIA

ANTZERKI-JAI BEDEGARA EBESTIJAKAZ MUNGIA'KO EUZKO-GASTEDIJA'K ERALDUTA, ERE-GE-EGUNEZ GABEKO ZORTZIRETAN ORMAETXE ARETUAN.

"Euzko-Gogua" Iru Egintzatan Biar jaunak gazteleraz egiñoko Antzerki edera euzkeraz antzertuko da.

Lenengo atala

"Agur Jaunak", iru abotsetara.
"Ume eder bat", lau abotsetara.
"Euzko Gogua,,'ren lenengo egintza.

Bigaren atala

"Txakolin", lau abotsetara.
"Ilun abara", lau abotsetara.
"Euzko Gogua,,'ren bigaren egintza.

Irugaren atala

"Txanton Piperi,,'ren azken-ereserkija.
"Euzko Gogua,,'ren irugaren egintza.

Amaitzeko artxo eder bat zozkatuko da. Zozketan batzen dan dirua azkenengo auteskundietan egin ziran zorak ordaintzeko ixango da.

Oara.—Sarera dubarik ixango da, eta Euzko-Gastedi eta E. A. B.'dako bazkide bakotxak bi eruateko eskubidia dauke.

Antzerki-Banaketa.

"Nekane", Urutia'tar Iñake.
"Miren", Gabilondo'tar Jule.
"Pantxike", Ateka; Miren Koldobike.
"Andere", Iturregi'tar Jenobebe.
"Jon Mikel", Bengoa'tar Norberta.
"Jon", Iturregi'tar Damen.
"Kepa", Bengoa'tar Jon.
"Gontzal", Irregi'tar Toma.
"Imanol", Arantzamendi'tar Eukeni.
"Otseña", Urresti'tar Jon.

Amaikeran ikusle gustijak "Euzko-Ereserkija" abestuko dabe.

INGI BILDEGIA
Papelería del Oria
MORAIZ'TAR JOSEBA MIRENA
Teléfono 154 TOLOSA

Izpar urtenenak



Jaurletxian.-Aldunegiko gora-berak. - Lapurra-eta. - Antzerki barrija. - Gipuzkoa'ko izparrak. - Durango'ko gixa-reilketea.-España-ziar-France'ko egazkiñak.-Europa'ko laterrijak

Bilbao'ko ertzañak atxilotu daben lapura, ezta makala. Saloki geyenetan ostu ixan dauz oyalak, gabeukatzak, pitxijak eta abar. Iru ertzain juan ziran lapur oren etxera ta bertan aurkitu ebezan iru mila laurleko balijo ebezan gauzak. Oxinaga'tar Deunoro deritxo.

卐 卐 卐

Atzo itxuli zan Bidasoa'ko Bera erilik, Bizkai'ko aldundi-ixunaren lendakarija dan Galano jauna. Aldunegijan ixan ziran atzo Erkoreka, Arbazegi-Gerikaitz eriko eradikalen lendakarija, Sukarieta endoria, Bermeo'ko langile-aldrea, Egileor'tar Imanol, Zala'ko endoria ta idazkarija.

卐 卐 卐

Jaurletxian ixan zan Etxebaria'tar Jontxu, Bermeo'ko naste-boraste gustijen buruba. Oraitsu lepaldu dautsoen ixuna kendu dagijola eskatu leutson jaurliari.

卐 卐 卐

Briñas jauna ixan zan jaurletxian. Biriki-gexoz dagozanen ardura-zaindunen batzako onule ixentau gura dabe ta Valverde'k erugu andijak egin eutsozan ardura ori bere gain artu egijan.

卐 卐 卐

Ertzañak atxilotu dabez alper-usaindunok: Berin'dar Jon "El Liebre", Olano'tar Jon, Minguez'tar Burna, Martin dar Peli, Llano'tar Jon. Gaste oneik alperkerijan bixi dira eta "Alper-lagija" lepalduko dautse.

卐 卐 卐

Valverde'k ezari dau irugaren ixuna. Agife'tar Julen'i oraingua bereganatu ya'zo.

卐 卐 卐

Gertakixun iruna jazo Durango'n. Eriko ertzañen buruba zan Rojo'ri bixitza kendu eutsen gaizkin batzuk. Bots sindikalistar atxilotu dabez, baña nor ixan dan ezin atzaldu daikegu oindikaren.

卐 卐 卐

Bilbao'ko arakiñaketa udalak erabili daben eztabaidea amatu da. Arakiñak eurenaz urten dira azkenean, be. Ori dala-ta, aragitegijak zabalik dagoz.

卐 卐 卐

Gipuzkoa'ko "Partido Regionalista" deritxon alderdikuak naste andijaz darabilez. Aldun-auteskundietan sortu ziran egon-eziñen batzuk. Aldun-gai aukeratu gura eben Soraluze eregetara, baña alderdiko gixonik argijenak aurka jari yakezan, Lafarga'reni xenaz. Ordutik ona drogan baño eztagoz.

卐 卐 卐

Arbós ereslarijak eskerak emon dautspez Donostia'ko udal, Donostiara Abespatza eta Ereskintza-Batza'ri.

卐 卐 卐

Gipuzkoa'ko aldundi-ixuneko lendakarija dan Castro Casal jaunak urutidazki bat bidaldu dautso Companys jaunari. Zorijonak egiten dautsoz Generalitat'eko lendakari ixentau dabelako.

卐 卐 卐

Muga jaurlia kanpotik da. Valencia'ra juan zan bere sendikuak ikustera eta tgun batzuk Madrid'en egingo dauz. Gipuzkoa'ko aregiñak arteztu biar ei-dauz.

卐 卐 卐

Sodupe'ko biztanlia dan Urtiaga'tar Imanol'ak zapaldu eben bere gurdibilaz sei urteko umetxu bat. Ondorengo txara ixan da umeorek, il-agiñean dago, ba.

卐 卐 卐

Gaur itzaldi edera egingo dau Beraondo'tar Eramun, "Martin de Angiozar" idazliak. Euzko-Pizkunde'ko aretuan ixango itzaldi ori.

卐 卐 卐

Atzo antzeztu zan Iruña'ko antzoki ederenean, "Emmanual" antzerkija. Vallejos'ek egiña da eta Euzko-Gastedijako mutilak antzeztu dabe.

卐 卐 卐

España'ko erkaltseñak batzartu ziran, eurekanatu bere, bai, azkespen edo amnistija noiz eta zelan biribildu biarko dan. Ezker-eskumakoen purustadeak eragin dautse.

卐 卐 卐

Aldun-batzar-Orokoran batu ziran eradikalak. Lerroux jaunaren itz-jarijua entzuteko asmoz batzartu ziran. Egubazten gustijetan bilduko dira. Eradikalen aldun gustijai dei-egingo dautse Madrid'en egon dadixan, aldun-batzaretatik alde-egin barik.

卐 卐 卐

Atzo goxian Zaragoza'ra eldu zan Azaña Jauna. Bere anayaren alabatxu jayoparija eskubetan artzera juan ei-da. Pilare'ko Ama Neskutza'ren txadonean ugutzau dabe ume ori.

卐 卐 卐

Atzo egin eben euren agerraldija Generalitat-jauregira, laterri-ordezkari gustijak. Urte-asikerean egin daroe, baña orainguan otzeratu egin eben Maciá'ren rijotza bide.

卐 卐 卐

¡Tarifa eritxuban ilda aurkitu dabez lau mutil gaste. Bi dositarak, bat austriara eta bestia txekotara ziran. Luraldez-luralde ibilen diran aldraetakoren batzuk ziran eta bedar edendubak jan-ostian-edo il ziran.

卐 卐 卐

Marcelino Domingo ezta naikotu. Itzaldi bat egingo ei-dau datoren barikuban. Bere alderdijari kemen barijari sartu gura dautso.

卐 卐 卐

France'ko egazkin batek ogeta lau ordutan igazi dauz 4.300 aneurkin. Orain arteko neuririk luziena iru milakua zan. "Cruz del Sur" deritxo egazkin ori.

卐 卐 卐

Roma'ko bakaldun-jauregijan jai ospetsubak ixan ziran atzo urte-bari egunak zirala-ta. Ludi osoko laterri-ordezkarijak batu ziran jai oretan.

卐 卐 卐

Chile'ko jaurbatzaren aurkako matxinada bat aurkitu dabe. Lenago erkalpuru ixan zan Ibañez'ek eratutako matxinadea ei-da. Notin asko atxilotu dabez, batez-be, Ibañez'en aldijan agintari ixan ziranak.

卐 卐 卐

Cuba'ko lendakari dan Grau San Martín jaunak aldun-auteskundiak egin biar dirala beriala ta agiri bat ixenpetu dau. Lagidi barija egiteko asmoz autuko dira aldunok.

EUZKOTAR UMIEN ALDEZ

ASTOA TA IDIA

GABON - IPUÑA

(Jaraipena)

Gaitzaren beroak labean sartzen zuanean burutik egiten zuan gaxoak eta orduan ez zuan beste gauzik aitatzen bere gogoa betetzen zuten Gabon gauzak baizik, eta dana zan abestia, gozokia ta jayotza ta Josu umetxoa.

Bere adimen nastuan eta irudimen beroan turoizko mendiak, kukuruku egiten zuten olarak, pi, pi egiten zuten txitak, argiz betetako ta aneika irududin jayotzak, jostaluz bete bete egindako zugatzak, aizko ibai aundi, bat, zerutik eroritzen ziran ure sagarak euri tantunak bezin ugariak, eta beste onelako alatz eta gauza ikusgariak, besterik ez zebilen bira ta bira.

Aita estu zebilen. Kelinetxo bere alaba bakaren gaxoa zala ta.

Bere zeregiñak eta artu-emanetako lanak etxetik ateratzen zuten, baña sari jotzen zuan etxera umia nola zegoan ikusteko.

Gaitzak bere bidia zeraman; batzuetan aurerantz gezurik gabe, beste batzuetan atzerantz saltzalien eran, baizijuala adierasten emanaz.

Batzuetan itxaropendun egun argi disdiratsua, bestietan itxaropenik gabeko gau ilun beltza.

Aita gizajoak arantza txara lenengotatik zeukan. Kelinetxo'ren seaskatxoa bere irudimenetik ezin aldendu zuan. Aura poztutziagaitik gabian gabian ekartzen zion Gabon bezuzen bat, gabero ezberdiña,, baña gozokirik ez.

Egun batian olo talde bat ekari zion ¡Ayek olo edefak! Biziak izateko karaxia egitia baño ez zuten bear.

Beste egun baten Sendi Deunaren erdia atera zuan bere jaken sakeletik, urengo egunian aita Deun Joseba, tresabia, ta Belen'go txabola.

Geroago artaldi aundi bat eta artzayakin zekian jayotzak ondo ipintzeko zenbat gauetori zan, geroago ibayan eropa garbitzen zuten andriak lagundu zioten; odolkiñak egiten zituan, arakiñen emaztiak ere bai. Baita urezko burestundun Bakaldun beltz batek ere, bizar zuridun Bakaldunak ere bai. Kelinetxo'ri Gabon gauzak ekartziaren ume bati ipurdian edefak ematen ari zan andre zar bat ere ekari zuan aitak.

Kelinetxo'k bere lengusutxuai aituta bai zekian jayotzak ondo ipintzeko zenbat gauza biar izaten ziran, eta lastef igefi zuna bere jayotzak, garantzi aundidun gauza bat etzeuzkala: astoa ta idia. Kelinetxok ezakian astoak eta idiak zer eginkizun zuten jayotzan, baña berak gauzak ondo nai zituan ez edozez moduz eta aitatxori bein bi ta iru bidez eskatu zizkion.

Aitak agindu zion ekariko zizkiola, eta bere biotzean abere biak gabe ez etxera etortzeko asmo sendoa artu ere bai, baña egun ura lotazilaren 23'g. zan, zeregiñak geitu zitzaizkion, ausi bat irabasi zuala jakin zuan, goiz osoa lagun bik kendu zioten, astirik ez zuan izan··· eta azkenez aitamaitekora asto ta idi gabe etxeratu zan.

Kelinetxo'k naigabe aundia erakutzi zuan bere jayotzak ain naita-nayezkoak zituan pitxi ayek biak, aitak ekari ez zionkalako. Aitak, bere utzegiña betetzeko atera juan nai izan zuan, baña umia asko gaizkitu zan egun artan sendagiliak erduantxe etori eta esan zituan itzak ez ziran aita-amen biotzak baretzeko erakoak eta iñork ez zuan oldoztu geyago Idia astorik eta idirik zanik.

Urengo egunean (Gabon eguna) gizajuak umien ondotik zirkiñik ere ez egitia erabaki zuan.

Umiak alditxo baten obeto zeguan arriak eman zituan eta danak itxaropentsu ziran. "Banua oraintxe astoa ta idia ekartzera" esan eta erteteko jastera juan zan.

(Daraike)

ARITOKIETA.

Euzkalduna: ¿Erosi ete-dozu urte onetarako egutegija? Bai, ondiño erosi ezpa-dozu, erosi len-bai - len, Euzkaltzale - Bazkuna'k argitaldu dauna. Egutegi Bizkaitarra deritxa. Euzko - Gastedijan dago salgei.

ELANTXOBE

EMAKUME-ARAZUAK.—Gure erijan Emakume Aberitzale-Batza'k daruan bide zuzena goraltzeko dira gauf lero oneik: Beneran euraen arluari ekiten dautse bijotz onez, eta ez lan gitxi eginda-be.

Euraen benetako zaletasuna ikusita—¡nok ukatuko dautse eskef eta goralbena?—. ¡Zenbat ume txiro jantsi ditube eurak gabon edurtsu ots onetan! Irurogetaz "Kaiku" deritxoen lanazko eropatxubak banandu d'tube ainbat ume txiroen artian, Emakume-Aberitzaliak kistar-ikasbide arasuan daruan lana onurakoretan. be onurakora, da.

Banandu ditube janzkijok eta eztautse begitu nori, naikua eriko txirua ixatia asare-barik eta matasunez euragana aureratuteko. Erdal esakeriak diño: "Ondo egixu eta ezegixu nori begitu" ona emen aberitzaletasunatzazko matasuna argi erakutsita eurak.

Uri onetako E. A. B.'tzak benetan ongi kertuten ditu, arako Bilbao'tik bezuzen bialdu dabezan sendi esku-zabalak. Baiña Ea auzo eriko sendi bijotz andiko batzuk bialduriko txindijagatik, be—¡ze pozik antzikituten ziran geure umetxu txiruak amaitu gozo eta gauza edef euraen artian ikusita!

Bai dira elantxobetar esku-zabal bijotz aundikuak bai, eurak eskertuten biurtu dagozan E. A. B.'ko batzordiak bijotzez eskartuten ditube neure bitartez.

Geuk ostera sendi oreik eskartubaz Emakume Aberitzale Batza ezkartu biar dogu eta jaratu orelango gauza ederak egiten gauza onak igali onak emongo dabezala.

Zeben arlua edero daruazube aurera beti eta arlo oren garaitz bezuzak zebenzu ixango dozubez. ¡Gora eta aurera Elantxobe'ko E. A. B.!

ERIJOTZEA.—Goiko Jaun onak bere gandu dausku egunotan Arandiaga'tar Jose Imanol (Jumanu) gixon ona. Bere sendi tamal aldijan agertzen yaku eta geuk ere oretan bijotzez lagüntzen dautzogu. Jumanu antziñako arantzale taldeko gixon zaharra enetarikua ixan dogu, eta erijan mate-mate ixaten gendun. Otoi ba, irakurle bere gogo alde.

URTE ZORUNTSUBA.—Opa dautzogu bet atal onetako irakurle eta idazle guztijoi batezbe "Lauaxeta" eta "Ibon" lagun zintzuoi.

OGOÑOPE.

Catalunya'ko iru olerkari

Udalaizpe'rena

II

Beraren biotz-ezpañak lorraldien sugarez aragotu baitzizkion Jaungoikuak. Aren izatea, maitez tutuluturik: bekokia ameska ta buru-muña irakiten. Beti zaigu gogo pilpiragari. Ikus erakusburuz:

NERE KABITXOAN ILKO NAIZ
(Lo Somni de Sante Joan Preludi.)

Badazaut eliza bat zugatz-artean.
Txadon ori euzki argitik ioeska.
Aren itzalpean loraz jositako
Larosa zuriaz yosita dagoan
Urtxindor maiteak kabia egin du.

Urtxindortxoa loretxo artean,
Beti gau ta egun abesten ari da;
Ainbat esateko ditu urtxindorak
Larosa zuriaz yesita dagoan
Larosondo maite ta loretsuari.

Eliz-ataria zure biotzaren
Irudi goxoak, Josu maite ori!
Apaindu daroa; Zerori bai-zera
Larosa-ondoa ta aren arantz beltzen
Loraz zurietan kabia egin dut.

Negar txio miñak urtxindorari
Entzutean, esan oi diot biotzez:
Irea baño obe duk nere kabia.
Ai! Eure abotsa izango ba nikek,
Ene urtxindor, urtxindor ori!

Amairik ez duan ortzi zabalean
Egaka-egaka eresi edera
Abestuko nikek! Erofen mintzoa
Izango ba nikek! Zein Jaun ona zeran
Nere egun-eguzki ta nere gau-izara!

Gaimelurren lorak urtxapaltxoari
Eman zeniskion beraren kabitzat;
Aitzeko zuloak urumaka ari dan
Uso zuriari; ozkarbi urdiña,
Arano beltz eta ortzi-zaleari.

Zure maitasuna gañezka darlon
Atseden zerua zerafin deunari
Beraren kabitzat ematen diozu;
Eta erleari lora zuria lez,
Gizon eskargeri zure Biotz ona.

Sari eri-gayak artu ta olerki pitxiz apaindurik azaltzen dizkigu. Aren bekokia olo-oria bezin garbi zegon eta Jainko-eguzkitera dirdaya zeriolarik olerki-lanari lotu oi zitzayon.

LORE ARTEAN
(Entre flors)

Josu aura oindiño guztiz txikia da.
Lore zuri-txikia, larosa dirudi.
Ama Neskutsa, beriz, larosa-ondoa,
Bera daramanean bere besoetan.

Erekara berakin joan doanean
Zapiak garbitzera; obeto ikusteko
Belar-izpi, lore ta orien gañean,
Arduraz ezari oi du bere Aurtxoa.

Aurtxoak iripare, Amak, beriz, negar.
Zapiak garbitzeko soiña makurtzean,
Biotzez maite duan semearen-ganantz
Bere begi estiek itzultzen bai-ditu.

Zugatz batek zegian itzal ozkirian,
Goxo ta baretsu lo dagola badakus.
Zerafin batek esku artean darabil
Beraren ile edera, belaunikatuta.

Aren bekokian ma-egin gura dio.
Ma maitalea ein nai, baña, ez azartzen.
Aurtxoak, maitasunez gañezka beterik,
Golpota gañean lez, besoak zabalik.

Ama maitegarlak bere besoetan
Jasotzean, etzanik egon zan belartzan
Jainko aurak ezari zun Gurutza dakus.
Aurtxoak iri pare, Amak, beriz, negar.

III) Azkenez "Canigó" idatzi zun. Aren idurimen-indara etzan oraindik mertzildu. Mardul ta zaintzuago duzu, oyez. Eskierago diardu ega ukaldika. Itzalak ayenagotuz, eguzkitan dirdaika gora dijoa.

Canigu'k, ene baitan, zaztada andia egin dit. Auñemendiak arigari, ziñez, azaltzen dira. Ageri danez, olerkaria mendiari so ta so egon zan. Maitasunez begira. Ta izaki guzien funtsa nabaitu zizun. Zifara ezti, gelgari ta iluna sortu erazi zizkion basoen ikuspegi edefak. Iduripen ikusgari ta aranditsuak parastaka ixuri zitun olerkariak. Mendi jario oizia zizun, alare. Orduarteko catalandar olerkariak urtun, orain ordea, ozar doa Verdaguer ozkarbi urdiñetan barna!

卐 卐 卐

Catalunya'ren Dante izan zenun. Verdaguer'en biotza, Jaingoiko ta Aberiaren eder-kilikabera zenun. Olerkiarekiko tiñel, giza-arazorekiko beriz, sorayo. Bere aberiaren izkera zimel eta margula birloratu ta birgaztetu zizun. Gerorako giro onean utzi zun.

Mendez-mende Catalunya'n ez da izan Verdaguer añako olerkaririk. Areago oraindik. Españi ta Europa'ko bikañenakin erkatu liteke.

Idaztietan olerkari danaren biotz ta gogoa ezagutu al balitz, Verdaguer'en biotz ta gogoa eguzki-begiko sagarak bezin mamitsu, zindo ta goxotzat izango genuke.

Maragall eta Gorina Jon

Barcelona'n 1860'gnko. urilaren 10'ean jayo zan eta uriburu bertan 1911'gnko. gabonilaren 20'ean il.

Etzan bulezka bizi. Aragi-iritsak etzuten menderatu. Gizon zuzenaren aldekoa ta erdipurdien etsai zorotza.

Antze andiko edertilari bide zan. Gaxtetandik olerki azi-orazietan jardun izan aren, 1880'gn. urte arte-edo, olerkaritzat etzuten aintzat artu. Goethe olerkari mardula jayoteri-zelayetara ekari ta itz neurtuetan "Ifigenia a Taurida" eta beste berein olerki catalaneraz jantzi zitunean, olerkari-txapela ezari zun.

"Mignon". Laranjak loretan dauden luraldea ezagutzen al dun"? olerkia soñekoz aldatzean benetako antze-lana egin zun.

Lengo urtietako lore gasteak, 1904 gn. Urtean, txorta baten bildu zituan. Izentzat "Les disperses" ipiñi zion.

Goethe olerkari bikañaren jarioa du ta olerki bat-edo-bat, adibidez: "Beraren gela baruan" gun eta mamiz Faust'aren arala dirudi.

1895'gn. urtean "Olerkiak" deritzan lenengo idaztia argitara jaurtizun. Biotz ikaraka ageri da olerkari mardula: Idazti ortan irakuri, dezakegun "Bei itxua" oringo aldian Españi ugartexean idatzi dan olerkarik bikañena da. Olerki ori agitz ederki euzkerara ekari zizun Orixe'k. Oraintsu euzkel-atalean Lauaxeta'k argitara dizu-ta, ez noakizu birraldatzen.

1900'gn. urtean egin zun "Visions y Cants" deritzan olerki-idazti zear, antxiñako kataluniar ospetsuenak ikusten ditugu. Orela, bere aberiarenganako maitasun sugara zabaltzen du. Amaratzak bere erayetatik amareuna antzo, Maragall'ek bere biotzetik olerki-ataratzen ari zan. Alare, amaika olerki aldatu zituan!

"Enlla" (1906) ta "Seqüences" (1911) deritzaten olerki-idaztiak, mendiko belaren eta itxasoko kresalen usaya dariete. "Vistes al mar", "Les montanyes" irakuri, aitatzen dudana argi ta garbi ikusteko.

Oldozpen nizke ta zindoz gañezka ageri dira, aldi ontako beraren olerkiak: Adibidez "Himne Iberich" deritzan olerkia. "Cant espiritual,,'an bide beriaren azatza uratu zizun.

GOGO ABESTIA

Ene Jaun ori! Zeure gentza zear
Ludia geure begien baruan
Badakusgu, ain edera yaku-ta,
Beste bizitza baten zer geyago
Oindiño emon al izango dozu?

Onetxegatik, begi ta arpegiar,
Soiña ta beti beronen baruan
Ostenduta dan neure biotz ori,
Ain arduratsu yagon daroadaz
T'eriotzaren bilduf andi nozu!

Mendiak baño gorago dageren
Ortzi urdiña, neuririk ez dauan
Itxasoa ta toki gustietan
Argi dagian euzkia, zelako
Beste begien bidez dakuskedaz?

Indazu begi oneitan betiko
Gentza eta ez dot gura izango
Ortzirik, ortzi urdin ori baño!
Une batxori bere "geldi adi"
Ez dirautsona ezin dot ulertu.

Ta eriotza gelditu nai dabe.
Neronek, bariz, egun bakoitzaren
Ainbeste une betikotu gura
Biotz baruan...! "Betikotu"ori
Baña, eriotza izango ote da?

Alan, bizitza zer ete litzake?
Igazi doan aldi laburaren
Itzala baño ez ete litzake?
Ondoan edo, urin dagoanen
Irudi utsa besterik ez ete?

Asko ta uri ta geyegiaren
zenbatz malmutza ez ete litzake?
Emengo danau, ez ete guztia?
Eta zer ! Ludi dan au, dana dau.
Jaun ori, neure aberia bai-da.

T'ezin izango litzake ludi au,
neure donoki aberia bere?
Ene Jaun ori! Gizona naz-eta,
siñetsi ta itxaron dagikedanaren
neuria bere, giza neuria da.

Neure siñismen eta itxaromenak
ementxe geldi-arazten banaue,
arontzago ortan eru ta obenik,
ori dala-ta, ezariko ete
daustazuz, ene gogoaren Jaunak.

Arontzago ortzi ta izarak dakusto
ta an be, gizona izan gura neuke.
Irazakiak neure begientzat
ederak eta irazakientzat
begi-asmenak irazan bai-dozuz.

Beraz, zergatik itxiko al dogu
beste era baten ustez? Niretzat
ezelan be ez da au lako ludirik.
Ene Jauna! Bai-zarala badakit.
Baña nun zara? Jauna, nork jakin?

Neuregan eta neure baranoan
dakusdana, zeu-irudi utsa da...
Ementxe bada, Jauna, zagozala
siñisten itxi egidazu, aren!
Giza begiok itxi arte, beintzat!

Datorkenean une ura, begi
aundiagoak edegi Jaun orek!
Zeure arpegi dizdiz gelgarria
dakuskedantzat; eriotza bekit
jayotza bikain ta gurenagoa!

1904'garen urtean "Mestre'en Gai Sember" egin zuten eta 1910'gn. "Enllá" olerki-txortak jaso zun "Fastenrath saria".

(Daraike)

Jesús Ostolaza
BERGARA
卐
FABRICA DE INSIGNIAS DE ESMALTE FINO
AZALIRARRI MIEZKO IKURRIÑEN OLEA

EUZKELDUN TXAPEL OLA
Boinas Elósegui
TOLOSA

TXIKORO (ACHICORIA) BAKE